



**SESTAOKO LAGUN ARTEA KLUBAK AURKEZTUTAKO ESKAERA,
ZEINAREN BIDEZ ESKATZEN BAITU KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL
BATZORDEAK GAUZATU DEZALA 2016KO EKAINAREN 8KO BILERAN
HARTUTAKO ERABAKIA.**

Espediente-zenbakia: 20/2016

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Euskadiko Euskal Pilota Federazioak honako hau erabaki zuen 2016ko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez: «Bere garaian Bizkaiko Pilota Batzordearen diziplinazko organoek Lagun Artea Klubari ezarri zioten zigorraren egoera kontuan hartuta, eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren diziplinazko organoek administrazioaren isiltasunagatik ezetsi zutela kontuan hartuta, Euskal Federazio honen eskumenetatik kanpo geratzen da, diziplinazko organo eskudunen ebazpen batek beste zerbait zehazten ez duen bitartean».

BIGARRENGOA.- Urtarrilaren 21eko Ebazpenaren ondorioz, eta Klubak orain dioen moduan, «(...) Lagun Artea Kluba urtarrilean eta otsailean jokatzen zen Kluben Euskal Ligatik kanpo geratu zen, eta, beraz, lehiaketa Lagun Artea Klubak parte hartzen zuen talde guztiak kanporatu ostean garatu zen, bi bikotez osaturiko Larruzko Paleta Ohorezko Mailan, bikote batez osaturiko pala motzeko ohorezko mailan, eta 2 bikotez osaturiko eskuz binakako gazteen kategorian, hain zuzen ere».

HIRUGARRENA.- 2016ko otsailaren 3an eta martxoaren 16an, [REDACTED] jaunak, Sestaoko Lagun Artea Klubaren izenean eta hura ordezkatzuz, Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren 2016ko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren kontrako hainbat errekurso aurkeztu zituen **Kirol Justiziako Euskal Batzorde honetan.**



LAUGARRENA.- Joan den urteko ekainaren 8ko bileran, Batzarde honek errekurtsio hori –Sestaoko Lagun Artea Klubak urtarrilaren 21eko Ebazpenaren kontra aurkeztu zuena– onetsi zuen. Horregatik, eta epaitu dugun erreklamazioari jarraikiz, zera eskatzen du orain klubak, «Euskadiko Euskal Pilota Federazioari 2016. urteko Kluben Euskal Liga errepika dezala agindu diezaiola, Lagun Artea Kluba lehiaketa horretatik kanporatu zelako, modu bidegabean, honako modalitate eta kategoria hauetan:

Larruzko Paleta Ohorezko Mailan

Pala Motza Ohorezko Mailan

Eskuz binaka gazteak kategorian».

BOSGARRENA.- 2016ko urriaren 11n, aurkeztutako erreklamazioaren berri eman zitzaion Pilota Federazioari, eta momentuz, ez du alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- 14/1998 Legearen 139.2. artikuluan eta 310/2005 Dekretuko 21. artikuluan zehazten denari jarraikiz, «Kirol Justiziako Euskal Batzardeak ematen dituen ebazpenak kirol-ekitaldiaren erakunde titularrak betearaziko ditu lehenik, zeina arduratuko baita benetan betearazten dela. Halakorik ezean, Batzardeak berak hartuko du bere gain betearazpena».

BIGARRENGOA.- Arestian adierazi dugun moduan, Batzarde honek – organoren arteko ibilera saihestera bideratutako ekonomia prozesaleko arrazoiak direla eta– Federazioari helarazi zion zuzenean erreklamazioa, hura baita, lehenik eta behin, organo eskuduna, eta momentuz ez du alegaziorik aurkeztu. Horregatik, orain hura aztertzeari eta ebazteari ekingo diogu, zuhurtziazko denbora bat igaro ostean.



HIRUGARRENA.- Aurreratu dugun moduan, Klubak 2016. urteko Kluben Euskal Liga errepika dadila eskatzen du, Lagun Artea Kluba lehiaketatik kanporatu baitzen, modu bidegabean.

Batzordearen ustez, uzi hori ez dator bat –bideragarria izango litzateke gainera– Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.3 artikuluaarekin.

Izan ere, Liga «errepika» dadila eskatzen du, aldez aurreko egoeraren klonazio eta atzeraeragin moduko bat egin dadila alegia, baina egoerak, aktoreak eta abar berdinak ez izatea gerta liteke (ondorio horietarako, Batzorde honek faltan botatzen du egoera hori osatzen lagunduko lukeen Federazioaren iritzia).

Dena den, eskaerari men egiteak aurreko urtean gauzatutako lehiaketa balio gabetzea esan nahi du, irabazleek lortutako sariak eta ohoreak legitimoki kenduz. Horrek hirugarrenen eskubideak edo interesak urratuko lituzke, 39.3. artikuluan jasotzen dena urratuz: «Salbuespenezko moduan, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzaren baten ordezkioak direnean, eta orobat interesdunaren aldeko ondorioak dakartzatenean, betiere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, eraginkortasunak kalterik egiten ez badie beste inoren eskubide edo interes legitimoiei».

Horrenbestez, bi arrazoi horiek direla-eta, ezinezkoa da hura aktoreak planteatutako eta eskatutako terminoetan betetzea.

Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi uzia guztiz alde batera utziko denik, eta erabaki osagarri bat hartu beharko da, hala badagokio, hura egin duenaren aldeko kalte-ordain bat finkatuz. Hau da, «baliokidearen betetze» doktrina aplikatzea; teoria hori hura zehatz-mehatz betetzea ezinezkoa den egoerak



konpontzeko sortu zen, eta, hala badagokio, hura bete dadila eskatzea ahalbidetzen da konpentsazio gisa, baina haren diru-baliokidea eskatuz.

Hori guztia dela eta, Batzordeak honako hau

ADOSTU DU

Aurkeztutako eskaera ezestea eta Lagun Artea Klubari ordezkoko kalte-ordainak eskatzeko aukera ematea, 2016ko ekainaren 8ko gure Ebazpena gauzatzeko ezintasuna dela eta.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtso-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 23a

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea